

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea Lapuebla de Labarcako Inaziotar Bideko aterpetxearen araudiari

Udalbatzak, 2022ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Lapuebla de Labarcako Inaziotar Bideko aterpetxea arautzen duen udal arautegiari, eta ALHAOn argitaratu zen, 64. zenbakian, 2022ko ekainaren 1ean. Legezko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betikotzat jotzen da, bat etorritik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan ezarritakoa betez, osorik argitaratzen da onetsitako arautegiaren testua, zeina behin betikoa baita. Hona hemen:

Lehenengo kapitulua. Xedea

**1. artikulua.** Araudi honen xedea da La Puebla de Labarcako "La hermandad" izeneko udal aterpetxearen erabilera eta funtzionamendu baldintzak arautzea.

**2. artikulua.** Inaziotar Bideko erromesen ostatu eta egonaldirako ekipamendua da aterpetxea.

**3. artikulua.** Udal aterpetxearen egoitza Kale Nagusiko 6. zenbakian dago.

**4. artikulua.** Aterpetxea udalarena baino ez da antolaketari, funtzionamenduari eta zuzkidura ekonomikoari dagokienez, eta Lapuebla de Labarcako Udalak du kudeatzeko, aldatzeko edo azkentzeko modua erabakitzeko ahalmena.

**5. artikulua.** Aterpetxeak ez du nortasun juridiko propiorik; zuzenean kudeatutako zerbitzua da, eta Lapuebla de Labarcako Udalaren zerbitzuak antolatzeko eta emateko ohiko arau eta praktika orokorren mende dago haren administrazio araubidea.

Bigarren kapitulua. Ostatu hartzeko eta erreserbatzeko baldintzak

**6. artikulua.** Aterpetzeko zerbitzuak eta gelak erabiltzeko, Lapuebla de Labarcako Udalak onartutako indarreko tarifak ordaindu beharko dira.

**7. artikulua.** Ostatu hartzea eskatzen dutenek adinez nagusiak izan behar dute; 18 urtetik beherakoek, berriz, adinez nagusi den pertsona batekin egon behar dute beti.

**8. artikulua.** Udal aterpetxean gehienez ere egun bat eman ahalko da.

**9. artikulua.** Aterpetxean ezin da erre eta ezin da kontsumitu edari alkoholduunik eta/edo estupefazienterik, eta ezin da animaliarik sartu, jabearen ardurapean dauden txakur gidariak izan ezik.

#### **10. artikulua**

1. Egondaldi eskaera aldeztu aurretik telefonoz erreserba eginez baino ezin izango da egin, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 9:00etatik 15:00etara) edo, hala dagokionean, udalaren web orrian erabiltzaileen eskura jarriko den aplikazio informatikoaren bidez.

2. Erreserba egin, ordaindu eta onartu ondoren, eskatzaileari gako bat emango zaio aterpetxean sartu ahal izateko, eta, horretarako Android telefono adimentsu bat izan beharko du, Bluetooth edo NFC edo iOS eta NFC duena, eta JustIN Mobile aplikazioa jaitsi beharko du.

3. Pertsona batentzako baino gehiagorentzako erreserba eginez gero, pertsona horien guztien identifikazio datuak (izena, abizenak eta NANA) agertu beharko dira, bai eta bidea egiten ari direla egiaztatzen duen pasaporte ere.

4. Litera bakoitzeko pertsona bakarrarentzako egin ahal izango da erreserba.

5. Udal aterpetxea erabiltzeko zerbitzuaren erreserba egiten den unetik bertatik sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Gerta daitezkeen kalteak litera erabiltzaileen erantzukizuna izango dira, eta kalte horiek konpontzeko eska dakieke. Erreserbarekin bat etorritik, interesdunek dagokion likidazioa egin beharko dute. Likidazioaren zenbatekoa udal kontuetan sartu beharko da. Edozein modutan, aurrez ordaintzea ezinbestekoa izango da aterpetxea aprobetxatu edo erabiltzeko. Erreserba egiten den goizean ordainketa justifikatzen ez bada, erreserba horrek eraginkor izateari utziko dio, eta hurrengo egunerako hutsik geratuko da plaza. Ordainketaren egiaztageria jaso ondoren, giltza elektronikoa aktibatuko da aplikazioan, eta erabiltzaileak bertatik deskargatu beharko du.

6. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonak beheko solairuko plaza irisgarria gordetzea behar badute, erreserba egitean jakinarazi beharko dute.

Erabilera pribatuak edo aprobetxamendu bereziak, edozein delarik kausa, udal jabari publiko apurtu edo hondatzea eragiten badu, onuradunak, dagokion tasaz gainera, egin beharreko berreraikitze edo konponketen kostua osorik ordaindu beharko du, baita horren zenbatekoa aldeztatik gordailutu ere.

**11. artikulua.** Erreserba ezeztatuz gero, ez da itzuliko ordaindutako zenbatekoa.

Hirugarren kapitulua. Bizikidetzaren arauak.

**12. artikulua.** Arau orokorrak.

– Aterpetxeak ez du langilerik esleituta; beraz, erromesek beraiek kudeatu beharko dituzte bizikidetzaren arazoak. Literak eskaera ordenaren arabera hartu behar dira (erreserba egitean esleituko dira).

– Pertsonen eta aterpetxe barruko bizikidetzaren, higiene eta garbitasun arauak bete behar dira.

– Errespetu osoz jokatu behar da aterpetxean lan egiten duten pertsonekin eta gainerako erabiltzaileekin.

– 00:00etan itxi baino lehen sartu behar da aterpetxeko instalazioetara.

– Gauean gainerako erabiltzaileen atsedena eta loa errespetatu behar da (isiltasun ordu-egia: 23:00etatik 06:00etara).

– Ezin da arroparik, oinetakorik edo bestelako objekturik zintzilikatu leihotetan.

– Egonaldiaren lehen egunean 13:00etatik aurrera sartu ahal izango da.

– Egonaldiaren azken egunean 11:00 baino lehen irten behar da.

– Erabiltzaile guztiek kontuz zaindu behar dituzte eraikina, instalazioak eta altzariak, batez ere logela eta litera, eta ezingo dute kartelik jarri, ez eta aipatutako horiek honda ditzakeen bestelako objekturik ere. Erabiltzaileak haiei egotz dakizkiekeen kalteen erantzule izango dira, eta Lapuebla de Labarcako udaletxean eman beharko dute gorabeheren berri, halakorik bada. Edozein kasutan, lagatako instalazioak edo gauzak kaltetu dituen eragindako kalte-galeren erantzule izango da.

– Oro har, ez da onartuko aterpetxeko erabiltzaileak bisitatzea instalazioaren barruan.

– Sarrera ukatzeko eskubidea dago, aterpetxeko gainerako bezeroei edo bertako langileei eragozpenak eragin edo errespetua galduz gero.

**13. artikulua.** Logelak.

- Udalak ez du bere gain hartuko erabiltzaileen gauzak lapurtu edo hondatzearen erantzukizuna.
- Ezin da janaririk edo edaririk biltegitatu edo kontsumitu geletan.
- Beheko izarak prezioan sartuta daude, baina ez oheko arropa, zeina erabiltzaile bakoitzaren kontura izango baita.
- Literak hutsik izan arren, erreserban markatutako litera erabili behar da.

**14. artikulua.** Sukaldea eta jantokia.

- Aterpetxeak ez du bere gain hartuko sukaldean/jantokian dauden edariak eta elikagaiak lapurtzearen edo hondatzearen erantzukizuna.
- Aterpetxeak mikrouhin labea du, bezeroek erabil dezaten. Instalazioak, tresnak eta gauzak arduraz erabili behar dira. Erabiltzaile bakoitzaren betebeharra da tresnak eta officea garbi uztea erabili ondoren.
- Aterpetxeko altzariak, koltxoiak eta bestelako objektuak ezin dira kanpora atera. Erabiltzaileek altzarien ordena eta banaketa errespetatu behar dituzte.
- Segurtasun arrazoiak direla eta, guztiz debekatuta dago labeak, berogailuak, metagailuak eta abar erabiltzea.

Laugarren kapitulua. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

**15. artikulua.** Eskubideak.

- Instalazioak erabiltzea, ordenantza honen eta aterpetxeko barne araudiaren arabera.
- Erreserben aplikazio informatikoaren bidez erreserbaren baldintzak egiaztatzen dituen egiaztatzea lortzea.
- Kexak edo erreklamazioak aurkeztea; horretarako, baliabide egokiak izango dituzte eskura (erreklamazio orria eta gogobetetasun galdetegia).
- Aplikatzekoa den indarreko legerian aitortutako beste edozein eskubide.

**16. artikulua.** Betebeharrak.

- Araudi honetan ezarritakoa betetzea.
- Instalazioak eta ekipamendua eta zerbitzuak behar bezala erabiltzea.
- Lapuebla de Labarcako udaletxean jakinaraztea instalazioen funtzionamendu arazoak, hausturak eta hutsak.
- Gainerako erabiltzaileen eskubideak errespetatzea, eta une oro beste erabiltzaileekiko bizikidetzaren erraztea.
- Ezarritako prezio publikoa ordaintzea.
- Errespetatzea aterpetxea irekitzeko eta ixteko orduak, bai eta isiltasun ordutegia ere.
- Indarrean dagoen legeriaren edo araudi honen ondoriozko beste edozein betebeharrak.

Bosgarren kapitulua. Zehapen araubidea.

**17. artikulua.** Araudi honetan edo Lapuebla de Labarcako alkateak edo hark eskuordetutako pertsonak araudi hau aplikatzeko emandako jarraibideetan xedatutakoa ez betetzea zehatzeko moduko arau hauste administratiboa da.

Araudi honen arau hauste larririk eginez gero, erabiltzaileak berehala atera beharko dira aterpetxetik, eta, horrez gainera, kasuan kasuko erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkie.

**18. artikulua.** Kanporatzeko eta hurrengo urtean aterpetxean sartzea debekatzeko arrazoiak izango dira, besteak beste, honako hauek:

- Nahita edo utzikeriaren ondorioz kalteak eragitea aterpetxeko instalazioetan eta gauzetan.
- Zerbitzuen ordena egokiaren eta aterpetxearen erabiltzaileen arteko bizikidetzaren kontrako portaera izatea.
- Aterpetxeko instalazioak eta gauzak haien berariazko xede ez diren helburuetarako erabiltzea.

#### Seigarren kapitulua. Erreklamazioak

**19. artikulua.** Erabiltzaileen eskubideak bermatuta egon daitezen, erreklamazio liburua egongo da erabiltzaileen eskura aterpetxean bertan. Edozein erabiltzailek, NANA edo pasaporteak erakutsi ondoren, erreklamazio liburua erabili ahal izango du. Liburu horretan, erreklamazioarekin batera, izen-abizenak, sexua eta helbidea jaso beharko dira. Garaiz, forma egokian eta idatziz erantzunak zaie erreklamazioei.

Araudi honetan edo Lapuebla de Labarcako alkateak edo hark eskuordetutako pertsonak araudi hau aplikatzeko emandako jarraibideetan xedatutakoa ez betetzea zehatzeko moduko arau hauste administratiboa da.

#### Zazpigarren kapitulua. Azken xedapenak

– Araudi honetan xedatutakoaren interpretazioari buruz sor daitekeen edozein zalantza Lapuebla de Labarcako alkateak ebatziko du behin-behinean, eta haren ebazpenak berehala betearaztekoak izango dira.

– Lapuebla de Labarcako alkatearen eskumena da araudi honetan ezarritakoa garatzen duten jarraibideak eta zirkularrak onestea.

– Lapuebla de Labarcako alkateak zerbitzuaren baldintzak aldatu ahal izango ditu, premiazkoa edo ezinbestekoa den edozein arrazoi delako medio.

Araudi hau indarrean jarriko da 7/1985 Legearen 65.2. artikulua aitpatzen duen epea igarotzen denean.

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako bi hilabeteko epea izango da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorri Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin.

Lapuebla de Labarca, 2022ko uztailaren 14a

*Alkatea*

**MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ**